

LORTU DUQU!

CCOO IRAKASKUNTZAK IRAKASKUNTZA PUBLIKOKO LAN-BALDINTZAK HOBETZEKO AKORDIOA SINATU DU, HAINBAT URTEZ BERRITU QABE EQON ONDOREN

Lortutako akordio arautzaile honek irakaskuntza publikoari baliabideak emateko eta euskal hezkuntza-sistemako irakasleen lana duintzeko jaurlaritzaren konpromisua dakar.

Hezkuntza Sailak behingoz aurkeztutako azken testua langileen errebindikazio-borrokaren eta CCOO irakaskuntzaren eta beste sindikatu batzuen negoziazio-jarrera irmoaren emaitza da. Horrela, akordiorako testu honek aurreko proposamenekin alderatuta hobetutako alderdi asko biltzen ditu:

- % 7ko soldata-igoera, (**+%2a orain; +%2,5a 2026ko irailean; +%2,5a 2027ko irailean**)
- 18 hilabete metatzeari lotutako gartzetzeko plana
- irakasjarduna eta ratioak murriztea Haur eta Lehen Hezkuntzan
- egungo konplexutasunari arreta emateko baliabideak areagotzea, batez ere hezkuntza-laguntzak, ongizate-koordinatzaileak, ALE...
- interinoen eta karrerako funtzionarioen lan-baldintzen eta eskubideen berdintasuna lortzea
- adingabeei medikuarengana laguntzeko denborarako ordaindutako baimen
- nahitaezko azterketa medikoak
- lan-kargak murriztea...

Qaur lortutako akordioa irakaskuntza publikoaren sektoreko langileek luzaroan eskatu dute, baina lorpen handia da, era berean, Administrazioari hobekuntza-marjina errealista duten alderdietan aurrera egiten jarraitzeko konpromisoa hartu izana.

CCOO irakaskuntzak konpromiso hori zainduko du, eta orain arte bezalako modua aktiboan lan egingo du, irakaskuntza publikoko langile guztien lan-baldintzak hobetzeko bidean aurrerapen gehiago lortzeko, eta, beraz, eskola publikoko hezkuntzaren kalitateari lagunduko dio.

ZORIONAK!